



Aurten bai!

3 LOGELAKO
ETXEBIZITZAK
230.000 €-tik
HASITA
ELGOIBAR



Lehen salmentetarako
AUKERA BEREZIAK



Ubitarte etxebizitzak

- 32 Etxebizitza eta garaje berri ingurune paregabe
- Etxebizitza zure neurria egokitzeko aukera
- Duplex atikoak solariumarekin
- Behe solairuak terraza handi eta txokoekin
- Jantzitako sukaldeak

Informa zaituzte

943 81 24 62

ANTZIBAR
CONSTRUCCIONES-ERAIKUNTZAK

www.antzibar.com

Bihar, Donostiara

Ekainaren 27an, astelehenean, Arnaldo eta beste zazpi lagunengatik aurkako epaiketa hasi zen Madrilgo Entzutegi Nazionalan. Egun espetxean dagoen Arnaldorekin batera, egoera berean dauden Miren Zabaleta, Sonia Jazinto eta Arkaitz Rodriguez ere epaituak izango dira; baita ere, egun libre dauden Rafa Diez, Amaia Esnal, Txelui Moreno eta Mañel Serra.

2009ko urrian atxilotu zituzten polizia operazio batean. "Dena da ETA" lelopean, espainiar poliziak eta hura bidali zutenek oso ondo zekiten Ezker Abertzalea eztabaida prozesu baten hasieran zegoela, eta atxilotuak zirela, hain zuzen, eztabaida horren bultzatzaile nagusiak. Eztabaida hori zapuztu nahi izan zuten horrela, beraien estrategiaren helburua Ezker Abertzalearen zatiketa zelako. Gaur egun, ia bi urte beranduago, eztabaida horren emaitzak begi bistakoak dira: EA eta Alternatibarekin akordio estrategiko bat dago sinatuta, Gernikako Akordioa martxan dago, eskubide zibil eta politikoen aldeko mugimendu zabala martxan dago, presoan aferak gero eta leku gehiago du agenda politikoan (eutsi goiari Sebas, Juan Mari, Ainara eta zu, Arnaldo!). Maiatzaren 22an egoera berriak eztabaida egin zuen hutesontzietan, eta batzuk ezin dira, oraindik ere, egoera berriari kokatu. Horregatik, Euskal Herrian zabaldu den fase politiko berria tratatu eta

oztopatu nahi dute. Hori da espainiar estatuko aparatuek lortu nahi dutena epaiketa honekin. Maiatzaren 22an Euskal Herriak erantzun borobila eman zien gauzak bere horretan mantendu nahi zuten horiei, ilegalizazio politikak mantendu nahi izan zituztenei, ukazioaren politika defenditzen dutenei.

Orain tamaina bereko erantzuna ematea tokatzen zaigu. Erakutsi behar diegu oso ondo dakigula zertan ari diren epaiketa horrekin, eta ez dugula inondik inora onartzen. Bihar, uztailaren 2a, hitzordua dugu Donostian, eta ezin dugu huts egin!

Pello Mendizabal



"Nire txanda" atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitez gurekin harremanetan: 943 744 112 edo barren@elgoibarkoizarra.com

“Bihar, uztailaren 2a, hitzordua dugu Donostian, eta ezin dugu huts egin!”

**ELGOIBARKO
GAZTELEKUAN
ASTEBURUETAN
LAN EGITEKO
HEZITZAILEA
BEHAR DA**

Eskatzen da:

- Gazteen munduan gutxieneko esperientzia eta eskarmentua izatea.
- Honako titulazio hauek izatea : Gizarte Heziketa, Gizarte laneko, iraskaskuntzako, psikopedagogia-ko,...erdi mailako unibertsitate tituluak izatea.
- Debabarreneko udalerrietan bizitzea baloratuko da.

Eskaintzen da:

- Urte beteko kontratua.
- Irailak 1ean hasteko kontratua.

Interesatuak curriculumak bidali
UZTAILAREN 13a BAINO LEHEN
e-posta honetara:
aisia.sustapena@elgoibarkoizarra.com
Tel.: 943 74 16 26 (Edurne)



**EIBARKO HIZKUNTZA
ESKOLA OFIZIALA**
Jardinetan, 3 - 20600 Elbar

2011/2012

MATRIKULA OFIZIALA ekainaren 30etik uztailaren 14ra

HIZKUNTZAK: ALEMANA, EUSKARA, FRANTSESA ETA INGELESA

Matrikula egin nahi dutenek Internetez bakarrik egin ahal izango dute www.eoieuskadi.net orrian.

Argibide gehiago: www.eoieibarheo.net orrian edo 943 200 618 telefonon.

Barren

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

Faxa: ☎ 943 743 704

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea,
Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA
Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Leire Rubio
MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz MAKETAREN
DISEINUA Jaione Unanue KOLABORATZAILEAK
Iñigo Lazkano, Anjel Bazterretxea, Andres
Alberdi, Angel Ugarteburu, Justo Arriola,
Arkaitz Irureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai
Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jesus
Mari Makazaga, Jairo Berbel, Joanes
Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa
Lendinez, Iñigo Lariz. INPRIMATEGIA Gertu
Koop. E. TIRADA 4.800 ale LEGE GORDAILUA
SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

Argitaratzailea:



Laguntzaileak:




ELGOIBARKO UDALA



MENDAKO UDALA



ARE ARE ET ALKATEA



GUTUNAK



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jaretzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

'Elgoibar bi erroberatan': eskerrik asko

IMHri ere

Ekainaren 12an Herri Eskolako Kalamua guraso elkarteak *Elgoibar Bi erroberatan* ekitaldia burutu zuen.

Hurrengo astean eskerrak eman genizkien lagundu eta parte hartu zutenei. Ez guztiei, ordea: akats bat tarteko zela, IMHri ez genizkion eskerrak eman.

Hori konpondu nahian, eta barkamena eskatzearekin batera, orain bai eskertu nahi dugula IMHk emandako laguntza.

Herri Eskolako Kalamua guraso elkarte ☺

Eskerrik asko!

Debemen elkarteak eskerrak ematea nahi dizkie Trinitateetako azoka bereziaren antolakuntzan lagundu duten guztiei, bereziki Elgoibarko nekazal auzoetako alkateei eta Angel Arrizabalagari. Auzoetatik lanera hurbildu zirenak ere gogoran izatea nahi ditugu.

Azkenik, ez ditugu ahaztu nahi azoka hau posible egin duten Elgoibarko baserritarrak ere, beraiek baitira protagonista nagusiak ekitaldi honetan.

Ea datorren urtera begira ere horrelako lan txukuna egiten dugun denon artean.

Mila esker, bene benetan!

Debemen elkarte ☺

Eskerrik asko

Altzolako jai batzordeak eskerrak eman nahi dizkie San Juan jaietan lagundu eta parte hartu duten guztiei. Era berean, Altzolako Urak eta Elgoibarko Udala eskertu nahi ditugu, jaiak antolatzeko eman diguten babesagatik.

Altzolako jai batzorde ☺

Eskerrik asko

Kimetz Elkarteak eskerrak eman nahi dizkie XXVII. Nahaste Borraste babestu zuten guztiei (Udala, komertzioak...). Era berean, zorionak, partaideei eta animuak ematera irten zen jende guztiari. Mila esker.

Kimetz Elkarte ☺

Mila esker

Sanloko zuzendaritzak eskerrak eman nahi dizkie joan zen zapatuan Ikastolan egin genuen

Sanlo Festa antolatzen lagundu zuten guztiei. Bereziki, IMH, eta Gure Bide, Baltasar eta San Roke elkarteak eskertu nahi ditugu euren instalazioak lagatzeagatik. Era berean, jokalaria, entrenatzaileak, babesleak, agintariak eta gurasoak eskertu nahi ditugu, beraien umorearekin gau zoragarria pasatu genuelako.

Sanlo ☺



Anjel Ugarteberu

Bai txanda azkar iritsi, Andres! Geuk aspertu artean jardun behar joagu ala irakurle apurrek "nahikoa dok" esan arte?

Politikaz zuzenean ez gaituk arituko, ezta? Komunikabide guztiek horretan dihardutenean adarra jotzea lirudike harpa horren hariak astintzea. Txisteak kontatzea, ostera, barruak ez jok beti agintzen.

Zaila izango dok, ordea, politikari bizkarra emanda aritzea; izan ere, une honetan arnasa hartzea bera ere ia ezina dok inguruko sunda jaso barik. Eskuartean dudan liburu batek eman jostak gaurko zapia egiteko haria. Hik ere ezagun duan baten liburua irakurtzen jiharduat. Zumaian bizi den azkoitiarra dok Jon Sodupe eta haren saiakera bat, *Hizkuntza ados jartzeko da*, irakurtzen niagok atseginez. Astiro irakurtzekoa dok, halako liburuak ohi direnez, baina lehen irakurraldian probetxuzko ideia batzuk jaso jittuat, behintzat.

“Hizkuntza modu txarrean erabiltzen duen gizakiak egiten jok huts, eta ez hizkuntzak berak”

Mintzaira ezberdin asko dituk munduan, baina, oro har, giza gogoen batasuna adierazten juek. Zoritxarrez, badituk hizkuntzak elkar ulertzeko bidetzat hartu beharrean, inkomunikaturik jarraitzeko hesi moduan erabiltzen dituztenak. Hizkuntzaren egitekoa ez dok komunikazioa, zerbaiten berri ematea, bakarrik. Bestearena entzun eta eztabaidaren ondoren akordioa risteko egoki ez den hizkuntzarik ez jagok. Horixe dok, hain zuzen, hizkuntzaren bigarren utziezinezko gurpila: akordioa. Hizkuntza modu txarrean erabiltzen duen gizakiak egiten jok huts eta ez hizkuntzak berak. Besteen kontra egiteko soilik erabiltzen den hizkuntza txirotua eta irendua geratzen dok.



Andres Alberdi

Kontraesanean sartuta gabiltzak, Anjel. “Politikaz zuzenean ez gaituk arituko, ezta?” diostak hasieran, baina, berehala, “zaila duk politikari bizkarra emanda aritzea” errematatzen didak. Ulertzen diat kontraesana.

Ados natorrek, Soduperen luman jartzen dituan hizkuntzaren bi ezaugarri horiekin: hizkuntzaren bi funtzio nagusiak komunikazioa eta akordioa direlako tesiarekin, alegia. Maila teorikoan ez diat uste postulatatu horren aurka ahots asko altxatuko denik.

Beti bezala, ordea, teoriatik praxiara jauzi egiten gertatzen duk alde. Eta alde hori non izango handia, eta, preseski, politika-munduan duk izugarria. Horra hor politika oraingoan ere hizpide.

“Dilema ez duk hizkuntza mailakoa, morala eta etikoa baizik”

Ezaugarriak jartzen hasi, eta Sodupek dioenaren juxtu kontrako norabidean sumatzen ditiat nik politikariak:

-Komunikazioaren orde, askotan, erretorika huts bihurtzen duk haien hizketa (“erretorika”, “jardun merkea”). Komunikaziorik batere ez, alegia. Eta haien ildotik kazetaritza bera ere, joera politiko jakin batzuen menpera erabat makurtuta, desinformatzen eta modu gaiztoan manipulatzeko gertatua eta errealtatea. Horrela ezin liteke egiazko komunikaziorik egon.

-Eta akordioaren orde ilunkeria eta fariseismoa baino ez. Akordioak hizketa eskatzen dik, gauzak elkarrekin pentsatzea eta adostea. Mundu politikoan, baina, ez zegok debaterik. Isilik pasatzea duk kontua; kastak bere prebendak mantendu nahi dituk ezeren gainetik.

Azkenean, hire tesiarekin bat natorrek: dilema ez duk hizkuntza mailakoa, morala eta etikoa baizik. Ez duk harritzekoa, beraz, jendea “sumindua” egotea.

ELENA
ileapaindegia
Depilazio Elektrikoa
San Frantzisko 49 -1 Tel: 943 741 189


MEKANOSA
Errosario, 27
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

AGURTZANE ETXANIZ

DEBEMENeko TEKNIKARIA

**“Baserriko
produktuak
erostean
ingurumena eta
paisaia babesten
laguntzen dugu”**



Debemen elkarteak ‘Baserrikoa, Debabarrena’ egitasmoa jarri du martxan, ekoizleak eta bezeroak gerturatzeko. Produktu freskoak, bertakoak eta garaian garaikoak kontsumitzea da helburua, eta horretarako, baserriko produktuak saltzen dituzten guneen promozioa egiten ari dira. Horrez gain, TaZEBAAez enpresarekin elkarlanean proiektu berritzaile bat abiatuko dute uztailen; takila sistema. Merkatu Plazan takilak jarriko dituzte, eta bezeroak ahal duenean jaso ahal izango ditu erositako produktuak. Egitasmo piloto horretan zazpi lagunek hartuko dute parte, baina interesatuek oraindik badute izena emateko aukera, Debemen elkartera deituta (943 744 067).

Zertan datza ‘Baserrikoa Debabarrena’ kanpaina?

Baserriko produktuen salmenta zuzena egiten den gunek promozionatzeko egitasmoa da. Helburu nagusia baserriko produktua kontsumitzaileari gerturatzeko da, eta bezeroak produktu horiekin identifikatuta sentitzea nahi dugu. Gipuzkoa osorako logo bat egin dugu, feria eta azoka guztiei irudi bateratua emateko, eta eskualde baikoitzak bere izena erabiliko du.

Salmenta zuzeneko gunek promozionatzea aipatu duzu. Elgoibarren zein gunedi-

tugu baserriko produktuak erosteko?

Merkatu plazara ostegunetan etortzen dira baserritarrak, eta denda txikietan ere egiten dira baserriko produktuak. Gure asmoa, baserriko produktuak saltzen dituzten establezimenduetan egitasmo berri honen logoa jartzea da. Horrez gain, Elgoibarko hainbat produktorek Internetez saltzen dute, eta etxeraino eramaten dituzte produktuak. Kontsumo taldeak ere indartzen ari dira toki guztietan, eta Elgoibarren ere badago talde bat, eta hileko azken zapatuko azokan ere eskuratu daitezke baserriko

produktuak. Azkenik, TaZEBAAez enpresarekin elkarlanean takila sistema jarri nahi dugu martxan uztailen.

Zer da takila sistema?

Debemen eta Debagaraia Landa Garapen elkarteek Ekiten lehiaketa antolatzen dugu, Mondragon Unibertsitatearekin elkarlanean. Iaz, TaZEBAAez enpresak irabazi zuen landa garapenaren eremuko atala, eta hortik sortu dugu takila sistema. Bezeroak eta baserritarrak gerturatzeko izango da egitasmoaren helburua. TaZEBAAez enpresako kideek egingo dute bezero eta produktoren arteko zubi-la-

na, bezeroek eskaera egingo dute, eta produktoreek astean behin utziko dizkiete eskatutako produktu horiek takiletan. Sistema honenkin ordutegian malgutasuna lortzen da, eta bezeroak berari ondo datorkionean jaso ahal izango ditu erosi dituen produktuak. Takilak merkatu plazan egongo dira, eta bezero bakoitzak bere giltza edukiko du. 8:00etatik 21:00etara egongo da atea zabalik, eta bezeroei aukera zabalagoa eskaintzen zaie.

“Baserriko produktuak erosteko joera handitzen ari da, gazteen artean, bereziki”

Jendeak badauka baserriko produktuak kontsumitzeko ohiturarik?

Takilen sisteman parte hartzeko zazpi lagunek eman dute izena, eta nik uste dut baserriko produktuak erosteko joera handitzen ari dela, gazteen artean, bereziki. Jendeak gero eta produktu naturalagoak nahi ditu, hurbilekoak eta zer jaten duen jakin nahi du. Gazte jendea gero eta gehiago hasi da baserriko produktua kontsumitzen.

Badira pare bat urte azken zapatuko feria indartzen hasi zinetela. Nolakoa balorazioa egiten duzue?

Egoera ez da txapligoak jotzen hasteko modukoa, baina azokan parte hartzen duten baserritarrak nahiko pozik daude. Salmentak egiten dituzte, eta produktuak kalera ateratzea ere garrantzitsua da. Gainera zapatu goizetan izate horrek beste mota bateko jendearengana iristen laguntzen du. Lanean dabilen jendearentzat baserriko produktuak erosteko beste aukera bat da hileroko feria.

Garai batean baserritarrak egunero etortzen ziren merkatu plazara, eta orain astean behin soilik. Zergatik?

Baserritarra ekoizle eta saltzaile da aldi berean. Askotan pertsona berak egiten ditu bi lanak, eta ezinezkoa da gauza denetan ego-

tea. Horregatik produktuak merkaturatzeko bide berriak aurkitu behar dira, eta bide guztiak dira onak. Bide ezberdinak jorratu behar dira, eta, horrela, bezero bakoitzak hobekien datorkiona aukeratu ahal izango du.

Zein onura ditu baserriko produktuak kontsumitzeak?

Baserriko produktua kontsumitzearekin sasoian sasoikoa jaten da, eta hori osasuntsuagoa da, bai guretzako eta baita ingurua-erentzako. Gainera, bertoko ekonomia sustatzen da, eta baserriak mantentzen laguntzen da. Baserriak mantentzen badira, ingurune naturala zaintzen parte hartzen dugu, eta nekazal aktibitatea mantentzen laguntzen dugu. Natura zaintzen da, paisaia, eta lurralde oreka mantentzen dugu. Azken batean, baserri guztiak hustuko balira, lurralde oreka puskatuko genuke. Kontsumitzaileak baserriko produktua erostean zertan laguntzen duen jakin beharko luke. Azkenean bezeroaren papera oso garrantzitsua da. Guk baserriko produktuak erosten baditugu, baserriak mantentzen laguntzen dugu, eta baserriak mantentzen badira, ingurune guztia mantenduko da. Azken batean baserriko produktuak erostean ingurumena eta paisaia babesten laguntzen dugu. Baserritarrak desagertuko balira, inguruko berdeguneak sasiz beteta izango genituzke, eta hori guztia zaintzeak sekulako kostua izango luke gizartearentzat. Baserritarrek euren produkzioarekin lan handia egiten dute, eta ez gara konturatzen: bideak txukundu, erreka bazterrak garbitu, belarra moztu...

Baserritarrei entzun izan diegu belaunaldien erreleboa falta dela. Nola ikusten duzu egoera?

Bai, falta da. Gazteei baserrian geratzea kostatzen zaie. Debabarrena, eta Elgoibar, bereziki, oso ingurune industrialia da, eta lan baldintzak desberdinak dira. Aste-an hainbat ordu lan egin, eta hilabete amaieran soldata ordaintzen dizute. Baserria askoz lotuagoa da, eta beste bizi-modu bat eskaintzen du. Batzuk, zorionez, horren aldeko apustua egiten dute oraindik. Esan behar dut, belaunaldi aldaketa hori kasu batzuetan kaletik etortzen dela. Baserritarren seme-alabengandik baino gehiago, kaleko jende gaztea hurbiltzen da baserrira, bereziki, nekazaritza ekologikora. Belaunaldi aldaketarena arazo handia da, eta horri lur falta gaineratu

behar diogu. Kaletik datorrenak ez dauka lurrik, eta lurrak eskuratzea oso zaila da.

Erosketa ohiturak asko aldatu dira, eta jendea merkatalgune handietara joaten ohitu da. Baserriko produkzioak izan du ohitura horren ondoriorik?

Bai, horrek kalte handia egiten dio. Kampaina honen helburuetako bat hori da, jendea baserriko produktuak erostera sentsibilizatzea. Merkatalgune handien kontra joatea oso zaila da, baina badago jende gaztea, elikadurarekin kezkatuta dagoena, baserriko produktuetara hurbiltzen ari dena. Hurbiltasunak konfiantza ematen du. Askok produktu ekologikotara jotzen dute, baina askotan, nahiz eta ekologikoaren zigilua ez eduki, baserritarra ezaguna bada, konfiantza ematen dizu. Herri mailako tratua konfiantza ematen du.

Herritarrak kontziente dira baserriko produktuak duen balio erantsiaz?

Nik uste dut ezetz. Joera aldatzen hasi da, baina aldaketak poliki datoz. Elikagaien krisi gogorrak izan ditugu, eta alarimak piztu dira. Kezka horiekin erosketa ohiturak aldatzen ari dira, baina aldaketak ez dira egun batetik bestera ematen.

“Baserritarrek aurrera egiteko duten aukera bakarra salmenta zuzena da”

Nola ikusten duzu baserriaren eta baserritarren etorkizuna?

Baserritarrek aurrera egiteko duten aukera bakarra salmenta zuzena da. Bitartekarien katea moztean ateratzen dute etekina. Belaunaldi aldaketa emateko gakoa hortxe dago: Produzitzen dena prezio duin baten saltzea; eta hori salmenta zuzenak bermatzen du.

Jende asko batu zen astelehenean Arnaldo Otegiren aldeko manifestazioan

Egun osoko kontzentrazioa egin zuten Plaza Handian

Astelehenean hasi zen Bateragune auziaren epaiketa, eta, horren harira, Arnaldo Otegi babesa emateko hainbat ekitaldi antolatu zituen *Arnaldo askatu*, *politika askatu* plataformak. Eguerdiko 12:00etan hasita, kontzentrazioa egin zuten Plaza Handian. Herriko elkarte, erakunde eta herritarrek hartu zuten parte kontzentrazioan. Iluntzean, bestalde, manifestazioa egin zuten, eta jende asko batu zen Otegi libre uzteko eskatuz. Manifestazioko bideoa ikusteko www.elgoibarren.net webgunera jo daiteke.



2009ko urriaren 13an atxilotu zuten Otegi, beste hainbat lagunekin batera, Batasunaren Mahai Nazionala berriro osatu nahi zutela eta ETaren esanetara ari zirela egotzita. Zehazki, ETako kide izatea eta "Eusko Alkartasuna, Aralar, Abertzaleen Batasuna eta ELA bezalako erakundeak Euskal Herria-Estatua esparrura eramatea helburu zuen aliantza independentista" sortzea helburu izatea leporatzen diete. Fiskalak hamarna urteko kartzela zigorra eskatu zuen urtarrilean.

22:00ak arte egongo da lehiaketako pintxoak dastatzeko aukera



lazko sarituak eta parte hartzaileak

Atzo hasi zen Pintxo Lehiaketa, eta gaur, 22:00ak arte egongo da pintxoak dastatzeko aukera. Aurtengo edizioan hamabost tabernarik eman dute izena: Txarriduna, Urkiola, Gabi, King-Kong, El Gautxo, Gorbea, Iturri, Salento, Ametsa, Lanbroa, Pilon, Mahats, Viento Sur eta Lojantzi. Tabernari bakoitzak pintxo bat prestatu du lehiaketarako, eta herritarrek, 1,10 euroko prezioan dastatu ahal izango dituzte.

Aurreko edizioetan bezala, bi sari banatuko dituzte aurten ere. Bata epaimahaiak emango du, eta bestea, herritarrek aukeratu dute euren botoekin. Botoa ematen duten guztien artean Belaustegi jatetxean bi lagunentzako dastatze menua zozketatuko dute.

Izena **Jon Peli Uriguen**



Jon Peli Uriguen Bilduko zinegotzia izango da Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntza eta Industria diputatua. Jon Peli Uriguen 'pozik' agertu da, eta bere ibilbidean erronka interesgarria izango dela aipatu du. Krisi garai honetan enplegua sortzea izango da bere helburuetako bat, eta horretarako berrikuntzak daukan garrantzia nabarmendu du. Jon Peli Uriguenek esandakoaren arabera, kargu berri honek ez dauka Udaleko zinegotzi karguarekin inkompatibilitaterik, eta printzipioz bi karguak betetzeko asmoa azaldu du.

Berbia **Mozioa**

Javier Nuñez PPko zinegotziak ETaren kontrako mozioa aurkeztu du Udalean. Haren esanetan, Jose Luis Ibartzabal Bilduko zerrendaburuak Sorturen legalizazioa eta presoak defendatu zituen ekainaren 11ko osoko bilkuran, baina ez omen zuen ezer esan ETaren desagertzari edo mehatxatuta bizi diren zinegotziei buruz.

Zenbakia **Milioi bat euro**

Bonolotoak milioi bat euroko saria laga zuen joan zen astean Elgoibarren. Zehatz mehatz, 1.045.997,36 euro eskuratu zituen Elgoibarko bizilagun batek, bera izan zelako sei zenbakiak asmatu zituen bakarra. Honako hauek izan ziren zorioneko zenbakiak: 5, 11, 28, 30, 35, 37; reintegroa 3; eta, osagarria 24. BARRENEK sarituarekin berba egiteko aukera izan du, baina bere izena ez argitaratzeko eskatu dio astekarriari. King-kong pareko loteria administrazioko saltzaileak pozez zorutzen zeuden, izan ere, bi sari eman baitituzte astebeteen: 63.000 eurokoa bata, eta milioi bat eurokoa bestea.



Alkoholiko Anonimoen hitzaldia, gaur, Santa Klaran

Elgoibarko Alkoholiko Anonimoen elkarteak hitzaldi irekia eskainiko du gaur Santa Klarako komentuan, eta edozein herritarrek hartu dezake parte. Saioa 20:00etan hasiko da. Alkoholiko Anonimoen elkarteak 76 urte egin ditu aurten, eta Elgoibarren lanean ari direla 26 urte beteko dira. Elgoibarko Alkoholiko Anonimoen taldea astelehenean eta barixakuetan biltzen da Santa Klarako komentuan, eta nahi duenareztat ateak zabalik dituztela gogorarazi dute. Taldearekin harremanetan jarri nahi izanez gero, ondorengo telefonora deitu daiteke: 619 827 112.

Astelehenean hasiko da OTA zerbitzua Madalan

Datorren astelehenean, hilak 4, Madalako aparkalekuko OTA zerbitzua kobratzen hasiko dira. Egunez 0,60 euro orduko kobratuko dute, eta gauetz, 0,125 euro orduko.

Gazte Informazio Guneak udako ordutegia dauka

Gazte Informazio Guneak udako ordutegia edukiko du uztailen. Hori dela-eta, astearte eta ostegunetan zabalduko dute, goizeko 9:00etatik 14:00etara. Abuztuan itxita egongo da, eta irailaren 1ean hasiko dira berriz lanean.

50 urtetik gorakoentzako prestakuntza uztailean

IMHK eta Debegesak 50 urtetik gorakoentzako *Eraiki zure etorkizuna* prestakuntza saioak antolatu dituzte uztaileko. Langabezian daudenentzako eta jarduera profesional bat abian jarri nahi dutenentzako saioak izango dira. Doako prestakuntza izango da eta bi saioz osatuta egongo da. Lehenengoa uztailearen 4tik 6ra bitartean eskainiko dute, eta bigarrena, 7tik 12ra. Interesatuak Debegesarekin jarri daitezke harremanetan, 943 820 110 telefonora deituta.



San Rokeko bidegorriko argiak gauez itzalita egoten dira: "Mekanika eta Olaizaga kiroldegi atzean dagoen bidegorriko argiak gauez itzalita egoten dira. Ez dakigu hondatuta dauden edo zer gertatzen den, baina eskertuko genuke parke inguruko argiak behintzat, piztea".



Trenbide kalean aparkalekuak kendu dituzte: "Trenbide kalean zama-lanak egiteko gune bat egokitu dute, eta horretarako, hainbat aparkaleku kendu dituzte. Elgoibarren gero eta zailagoa da autoa aparkatzea".



Txalo bat udaltzainei, hileta eta ezkontza egunetan egiten duten lanagatik: "San Bartolome parrokian ezkontza edo hiletaren bat egoten den egunetan lan handia egiten dute udaltzainek, eta txalo bat merezi dute. Egun horietan zerbitzu bikaina eskaintzen du Elgoibarko Udaltzaingoak, eta eskerrak ematen dizkiet. Segi horrela".



Zuen kezak, galdetak edo txalotzak bidaltzeko:
barren@elgoibar.com 943 744 112

LAGUNAK KOLTZOI DENDA- TEXTIL HOGAR

Estore, gortina eta japoniar panelak egiten ditugu neurrira.

**ESKA EZAZU
ZURE
AURREKONTUA
KONPROMISORIK
GABE**



San Roke kalea, 20 - Tel.: 943 744 457 - ELGOIBAR - www.textillagunak.com



Erretratu zaharra**1946**

Aste honetako erretratu zaharra Antonio Arrillagak ekarri du BARRENEKO erredakziora. Ez dago seguru, baina erretratuak 64-65 urte inguru dituela uste du, argazkian agertzen den ume bat bera izan daitekeela uste du-eta. Erretratuan agertzen diren emakumeak ez ditu ezagutzen, baina bere senide batzuk ezagutu ditu.

1. Mari Arano, 2. Eva Ibarluzea, 3. Antonio Arrillaga, 4. Lucia Ibarluzea, 5. Maria Luisa Ibarluzea.



ESKERTZA

JUANI IZAGUIRRE ARRIZABALAGA

2011ko ekainaren 27an hil zen.

Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ESKERTZA

ELOY MONREAL SARACHO

2011ko ekainaren 27an hil zen.

Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



AURTEN BAI!



Nagore Rodriguez, Andrea Conde, Ane Izeta, Nerea Lazkano, Itxaso Egaña, Nagore Lueches, Jone Loiola, Jone Larrañaga eta Nora Hadi.

Neska talde batek nesken futbol taldea sortu nahi du datorren denboraldirako. CD Elgoibarren urte askoan izan da nesken taldea, baina aurtengo denboraldian ez dute lortu taldea osatzea. Nesta batzuk Debako Amaiak Bat taldean jokatu dute, baina euren nahia Elgoibarren jokatzeko da. Neska gazteak behar dituzte taldea osatzeko, 14 urte ingurukoak, eta futboleko jokatzeko gogoia eta konpromisoa eskatzen dituzte.

Ainhoa Andonegi

Aurten talderik osatu ezean, CD Elgoibarko nesken taldea betirako desagertuko dela esan dute Ane Izetak eta Andrea Condek. Futboleko jokatu nahi duten neska talde baten izenean hitz egin dute, eta beraien nahia datorren denboraldirako nesken taldea osatzea da. Hamabost bat neska futboleko jokatzeko prest eta gogoz daude, baina taldea osatzeko jende gehiago behar dute, eta

herriko neskei egiten diete deia: "Ez da behar futbolari ona izatea, hori ikasi egiten da", adierazi dute. Futboleko jokatzeko ilusioa eta gogoia duten neskek nahi dituzte, baina aldi berean, konpromisoa hartuko dutenak. "Badakigu, dena delakoagatik, entrenamendu eta partida guztietara joatea ezinezkoa dela, baina konpromiso minimo bat eskatzen dugu".

Babes falta

CD Elgoibarrek nesken taldea osatzeko babes gutxi eskaini diela adierazi dute neska hauek. "Badakigu nesken eta mutilen futbola desberdinak direla, baina guk ere futboleko jokatzeko eskubidea daukagu", esan dute. Entrenatzaile batekin ere jarri dira harremanetan, eta aurten taldea "derrigor" osatu behar dutela argi daukate.

Futboleko jokatzeko gogoia eta konpromisoa hartuko duten neskek behar dituzte talderako



Alberto Hernandez

Nesken taldeko entrenatzaile ohia

“Mutilek bakarrik hartzen dute futbolerako bidea, baina neskekin lan handia egin behar da”

Nesken futbolari lotuta Elgoibarren izen bat agertzen da: Alberto Hernandez. Berak sortu zuen nesken taldea, eta urte pila bat egin zituen entrenatzaile lanetan. Eskolarteko Kirolean hasi zen entrenatzaile lanetan, eta talde haren segidan egin zuen Regional mailako nesken taldea. 2006 urte inguruan utzi zuen futbola.

Zuk sortu zenuen nesken futbol taldea. Nola gogoratzen duzu hasiera hura?

Nire ilobak 9 urte zituenean euren Ikastolako taldea entrenatzeko eskatu zidan. 25 urte inguru izango nituen, eta halaxe hasi nintzen entrenatzaile lanetan. Talde hark eskolartean jokatzeko adina gaititu zuenean, Gipuzkoan jokatzeko nesken taldea osatzea bururatu zitzaidan. Ikastolako bi taldetako neskekin osatu nuen estreinako taldea, eta Mintxeta inauguratu zuten urte berean hasi ginen jokatzeko. Neuk egin nuen lan guztia, eta Klubak ez zidan inolako oztoporik jarri. Inguruan Eibartarrak taldea indartsu zebilen, eta nesken futbola indarra hartzen ari zen. Talde ona osatu genuen.

Elgoibartik futbolari onak irten dira, ezta?

Bai, lan handia egin genuen eta oso talde ona izan genuen urte batzuetan. Garai hartan futbolarik indar handia zeukan herrian, eta neska askok nahi izaten zuten futboleko jokatzeko. 14 urte betetzean hasten ziren jokatzeko, eta ez zeukaten 25 urtekoekin jokatzeko inolako arazorik. Futboleko jokatu nahi zuen jendea geneukan, konpromiso handikoa. Gure taldea Gipuzkoako indartsuenetakoa zen. Urte batean Nazional Mailara igo ginen, eta han maila handia zegoen.

Aldaketa nabarmena izan zen, eta denboraldi bakarra egin genuen arren, esperientzia oso polita izan zen.

Zergatik etorri da nesken futbolaren gainbehera?

Ez genuen talde hari segida emateko neskarik aurkitu. Futbol 8 taldea sortu nuen 12-13 urteko neskekin, baina talde handira sartzeko ordua iritsi zitzaieanean beldurtu egin ziren. Nagusiak taldea lagatzen joan ziren, lesioengatik batzuk, ezkondu eta umeak edukitzeko beste batzuk... Gainera, eskubaloiak indar handia hartu zuen, eta neska gehienak eskubaloiako bidea hartu zuten. Mutilek bakarrik hartzen dute futbolerako bidea, baina neskekin lan handia egin behar da. Beraiekin hitz egin, gurasoekin... nik ordu asko sartzen nituen horretan, baina azkenerako ezin nuen. Astean hiru entrenamendu saio, asteburuan partidak... Mutilen talde bat entrenatzeko aukera eman zidaten, eta 2006an utzi nuen nesken taldea.

Elgoibar bezalako herri batek nesken taldea izan behar duela uste duzu?

Bai, espero dut nesken taldea berriz sortzea eta segida izatea. Ni orain eskubaloitik gertuago nago seme-alabek han jokatzeko dutelako, baina poztuko nitzateke nesken futbol taldea sortuko balitz.

14 urtetik gorakoak

14 urtetik gorako edonork jokatu dezake nesken taldean, baina Ane Izeta eta Andrea Conderen iritziak, gaztetxoak falta dira. “Lehen ume gehienek lehen aukera futbola izaten zen, eta futbolerako balio ez zuena eskubaloiara joaten zen. Orain alderantziz gertatzen da, baina futbolerak soberakinak ere ez dira iristen”, esan dute. Sanlo eskubaloi klubak sekulako lana egin dutela uste dute, eta futboleko ere horrela funtzionatu behar litzatekeela iruditzen zaie. “Garai batean Alberto Hernandez entrenatzailea ibiltzen zen Eskola Kiroleko neskei begira, eta futbolerako balio zuena fitxatzen zuen talderako”, azaldu dute nostalgiaz beterik. Alberto Hernandezek entrenatzaile izateari laga zionetik nesken taldea gainbeheran joan dela aitortu dute.

Ane eta Andrea neska gazteak entrenatzeko ere prest azaldu dira. “Regional mailan jokatzeko 14 urte izatea ezinbestekoa da, baina 12-13 urteko gaztetxoekin Futbol 8 taldea osatu daiteke, eta horrela, nesken taldearen jarraipena ziurtatuko litzateke”. Lagunak egiteko, jendea ezagutzeko, kirola egiteko eta ondo pasatzeko beste modu bat da neska horien ustez futbola, eta taldea betirako desagertzea “pena handia” izango litzatekeela diote.

Nesken taldean jokatzeko interesatuek bilera egingo dute datorren eguaztenean, uztailak 6, 19:00etan Mintxetan. Informazio gehiago nahi izanez gero, ondorengo telefonora deitu daiteke: 671 688 169 (Fernando Loiola).



HARITZ ARRIETA NAIARA MARTIN

Gazte Asanbladako kideak

Udarekin batera, jai-giroak betetzen ditu azkar batean kaleak, eta gure herrikoak ere uste baino lehenago iritsiko dira. Batzuentzat beste batzuentzat baino lehenago ordea; egun horien antolakuntzan dihardutenei dagoeneko hasi zaizkie eta ate-joka jaiak. Gazte Asanblakoak dira horietako batzuek. Pasa den urteko arrakastaren ostean, aurtan ere gazteen eguna antolatzeko motorrak berotzen hasi berri dira. Atzo izan zuten prestaketarako lehen bilera. Egiteko askorekin, baina gogotsu topatu ditugu Naiara Martin eta Haritz Arrieta, Gazte Asanbladako kideak.



“Gazteen Egunaz gozatuko duena izan dadila antolatzen ere arituko dena”

Pasa da urtea, eta Gazte Asanbladakoak jarri zarete berriz ere jaietako gazteen egunari begira.

Bai, denbora azkar pasatzen da, eta dena prestatzeko, berandu baino lehen jarri behar dugu martxan.

Iaz, asanbladak deialdi irekia egin zuen egun hau antolatzeko. Aurtan berdina egiteko asmoa daukazue?

Bai, baina pasa den urteko akatsetatik ikasita, gauzak hobeto egin nahi ditugu. Iaz azkenerako, batu genuen gazte taldea ez zen horren irekia izan; lehenengo egunetik azkeneraino berdinak jardun genuen lanean. Eguna antolatzen batzuek, eta egunaz gozatzen beste denak. Hori aldatu nahi dugu baina; egunaz gozatuko duena izan dadila, antolatzen ere arituko dena.

Zergatik ikusten duzue hori garrantzitsua?

Oso desberdina delako egun hori nola bizi duen prestaketan aritu denak, eta aritu ez denak. Interesgarria iruditzen zaigu gainera, denok parte hartuz, koadrilen arteko harremanak sendotzea, belaunaldi desberdinen artekoak batzea eta elkarren berri izatea. Horrela gainera, denok sentituko dugu egun hau zertxobait gureagoa dela.

Belaunaldiak aipatzen dituzue, baina gaztetasunak badu adinik zuentzat?

Norberak jartzen dizkio mugak bere gaztetasunari. Gazte txartelak ez du baliorik guretzat, ez dugu horrelakorik eskatuko eta ateak zabalik ditugu gazte sentitzen den orontzat.

Eta nola egingo duzue hori?

Asanbladen bidez. Asanbladan sinesten dugu, eta horrela antolatu nahi ditugu gauzak. Herriko gazteak, ahal dela gutxienez koadrila bakoitzeko bana, asanbladetan batzea da gure asmoa. Atzo izan

genuen lehenengoa, eta aurrerantzean ere etorriko dira beste mordo bat. Erabakiak hartu, lanak batu, gauzak prestatu... dena egingo dugu bertan. Geure artean berba eginez erabakiko dugu nola ospatu nahi dugun geure eguna.

Iaz erreka jaitsierak arrakasta izan zuen. Errepikatuko da berriz ere proba hori?

Ikusiko dugu. Egia da denok ere gustura ibili ginela errekan bueltak. Oso giro polita sortu zen eta harrigarria izan zen jendeak nola erantzun zuen. Baina esan bezala, asanblada horietan erabakiko dugu dena. Batzen garenok erreka jaitsiera beharrez, beste zerbait antolatzea nahiago badugu, halaxe izango da.

Akatsetatik ikasi beharra aipatu duzue. Zer hobetuko zenukete pasa den urtetik?

Parte hartze aktiboagoa lortu nahi dugu, bai gazteen aldetik, baina baita orokorrean herriaren partetik ere. Bereziki, Udalaren aldetik aurtan prestutasun gehiago egongo delakoan gaude.

Txiki Egunaren hurrengo egokitu da gazteena. Horrek eragingo du, zuen ustez, parte hartzean?

Parte hartzean ez dugu uste eragingo duenik, baina bai agian egunaren programaketan. Denontzat izaten da Txiki Eguna egun handia, eta biharamuna gogorra izaten dela ere badakigu. Beraz, ziurrenik eta orain arte jendearengatik jasotakoaren arabera, ez dugu uste pasa den urteko egunaren dinamika bera jarraituko duenik aurtengoak. Baina hori guztia ikusteko dago. Egingo ditugun bileretan erabakiko da. Hala ere, argi daukagu aurreko eguna Txiki Eguna izateak, ez digula Gazteen Eguna ospatzeko gogorik kenduko.

San Juan jaien erreleboa hartuko dute Idotorbeko jaiek asteburuan

Altzolan su ikusgarria egin zuten ibaian San Juan bezpera egunean

San Juan suek argitu zuten urteko gaueko motzena, hau da, ekainaren 23a. Elgoibarko hainbat lekutan piztu zuten sua, baina ikusgarriena Altzolan egin zuten, ibaian. Herrigunean, bestalde, Ubitarte Gain eta San Roke artean egiten ari diren obretan piztu zituzten supazterrak, eta umeek gozatu ederra hartu zuten suaren gainetik salto eginez.

Asteburuan Idotorben

Asteburu honetan Idotorbeko jaiek hartuko dute Altzolako San Juanen erreleboa. Eguaztenean ospatu zuten San Pedro eguna, baina bihar eta domekan ere hainbat ekitaldi egongo dira. Musika, dantzak, herri kirolak eta umeentzako jolasak egingo dituzte, besteak beste. Egitarau osoa agendan aurkituko duzue.



Ander Zulaikak irabazi zuen Plazatik Gazttxera bertso lehiaketako Mendaroko kanporaketa



Ander Zulaika itziartarrak irabazi zuen Plazatik Gazttxera lehiaketako Mendaroko kanporaketa, eta zuzenean sailkatu da Mutrikun jokatu den finalerako. Aitzol Urain mendaroarrak laugarren egin zuen. Agurrean doinu berri bat atera zuen, eta saioa amaitzeko bota zuen bertsoa anaiari eskaini zion, bere urtebetetze eguna zelako eta Espainiako txirindulari txapelketa jokatzen diharduelako.

Kirol argazkien lehiaketan parte hartzeko epea, uztailaren 15era arte

Udalak eta Ongarri argazki elkarteak kirol argazkien lehiaketa antolatu dute, eta bertan parte hartzeko epea uztailaren 15ean amaituko da. Partaide bakoitzak lau argazki aurkeztu ahal izango ditu gehienez. Lehiaketako lan guztiekin erakusketa egingo dute, abuztuaren 22tik 31ra arte. Interesatuak Olaizaga Kiroldegian entregatu beharko dituzte erretrauak.

Txalaparta tailerra egingo dute domekan Altzolan

Altzolako Zubibai elkarteak txalaparta tailerra antolatu du domekarako. Saioa 11:30ean hasiko da, Altzolako frontoian. Bestalde, 16 urtera artekoentzako ikusentzunezko tailerra emango dute uztailaren 4tik aurrera. 16 orduko ikastaroa izango da.

Gaur gauean hasiko da aire libreko zinemaldia 'Piratas del Caribe' filmarekin

Pelikula guztiak Plaza Handian izango dira, 22:30ean hasita



Piratas del Caribe, en mareas misteriosas film arrakastatsurekin hasiko da gaur gauean aire libreko zine emanaldia. Martitzenean egin zuten aurtengo zikloaren aurkezpena, eta Blanca Salegi kultur teknikariaren esanetan, era eta gustu guztietako filmak aukeratu dituzte, "familiako kide guztientzat". Aurtengoan hamar film emango dituzte, eta saio guztiak 22:30ean hasiko dira Plaza Handian. Euria egingo balu, filma atzeratu egingo litzateke. Hala, barixakuetako filma domekara pasako litzateke, eta zapatuan euria eginez gero, astelehenera edo hurrengo astera. Plaza Handian 600 lagunentzako lekua izango da.

Uztailak 1, barixakua

Piratas del Caribe, en mareas misteriosas

Uztailak 2, zapatua

Agua para elefantes

Uztailak 8, barixakua

The tourist

Uztailak 9, zapatua

Enredados

Uztailak 15, barixakua

No-controles

Uztailak 16, zapatua

Rio

Uztailak 23, zapatua

Bienvenidos al sur

Uztailak 24, domeka

Narnia, la travesía del viajero del alba

Uztailak 29, barixakua

¿Para qué sirve un oso?

Uztailak 30, zapatua

Bebes

Folklore jaialdiaren 25. urteurrena dela-eta, ekitaldi berezia antolatu du Haritz dantza taldeak



Nazioarteko folklore jaialdiak 25 urte egingo ditu aurrean, eta horren harira, ekitaldi berezia prestatu du Haritz dantza taldeak. 25 urte hauetan guztietan jaialdian parte hartu duten dantzari, musikari eta laguntzaile guztiak elkartu nahi dituzte uztailaren 22an, hau da, jaialdiaren egunean. 18:00etan elkartuko dira guztiak, eta aurtengo jaialdian parte hartuko duten dantzariari ongi-etorria egingo diete udaletxean. Ondoren, luntx txiki bat egingo dute taldeak merkatu plazan duen egoitzan, eta gauean, denak batera joango dira kiroldegira, aurtengo jaialdiaz gozatzen. Luntxa prestatu ahal izateko zenbat jendeke parte hartuko duen jakin nahi dute antolatzaileek, eta ondorengo bloga prestatu dute izena emateko: www.dantzan.com/blogak/haritz/jaialdia-25

Moby Dick taldearen kontzertua, gaur

Sinuosek antolatuta, Moby Dick taldearen kontzertua izango da gaur gauean, Kultur Etxeko so-toan. Estatu osoan zehar kontzertu bira erraldoia egin ondoren, eta besteak beste, "Pop-Rock Villa de Bilbao" lehiaketan saritua izan eta gero iritsiko da taldea Elgoibarrera. Kontzertua 22:30ean hasiko da, eta sarrerak 3 euro balioko ditu.



SANTI ARRIOLA

Quad kros txapelketako antolatzailea



Espainiako Iparraldeko Zonaldeko Quad Txapelketa izango da aurtengo berrikuntza nagusia Idotorbe-San Pedroko jaietan, zapatu honetan. Ikuskizuna ziurtatuta dagoela dio azken urte eta erdian guztia antolatzen ibili den Santi Arriolak: “Hoge metroko jauziak, berrogei pilotu lehian... ez galtzeko modukoa izango da”.

“Ikusgarria izango da quadak hoge metroko jauziak egiten ikustea”

Nola bururatu zitzaizuen quad txapelketa antolatzea?

Auzoaren alde zerbait egiteko gogoak bultzatuta hasi ginen honetan. Batetik, motorren munduari lotuta egon den auzoa izan da gurea azken urteetan, eta motorrekin zerikusia zuen zerbait antolatu nahi genuen. Eta, bestetik, Euskal Herrian quadetan ibiltzeko afizio handia dagoen arren, hemen inguruan txapelketarik ez dagoela eta, urrutira jo behar izaten dutelako kexu diren pilotu batzuekin berba egin nuen. Ate mordo bat jo eta lan handia egin ostean lortu dugu azkenean quad txapelketa antolatzea.

Eta ez edonolakoa gainera. Espainiako iparraldeko zonaldeko txapelketa jokatu da zapatuan Idotorbeko zelaietan.

Halaxe da, bai. Urte eta erdi daramat hau guztia antolatzen eta ez pentsa lan erraza izan denik. Federazioarekin datak eta araudia adostu, Madrileraino joan-etorriak... lan handia dauka honek atzetik. Azkenean, baina, proba oso garrantzitsua ekarri dugu Elgoibarrera. Gaztela Leoneko federakuntzarekin elkarlanean Iparraldeko zonako Espainiako txapelketa antolatzea lortu du San Pedroko Jai batzordeak.

Zer aurkituko dute zapatuan Idotorberaino hurbiltzen direnek?

Hasteko, motorren munduari lotutako jai giro itzela. Quadak eta motokroseko motorrak izango dira protagonista nagusiak. Sektoreko markek euren produktuak erakutsiko dituzte eta buggy antzerako batzuetan buelta batzuk emateko aukera ere izango du jendeak, besteak beste. Quad txapelketaren aurretik, gainera, 85 ccko motokros lasterketa bat egingo dugu eta bi pilotu elgoibartarrek hartuko dute parte ziurrenik. Quad txapelketari dagokionez, hiru kategoriako ibilgailuek parte hartuko dute: Q-1, Q-2 eta hasiberriek. Estatuko

quad piloturik onenak etorriko dira: Gaztela Leoi, Asturias, Galizia, Errioxa, Aragoi, Kantabria eta Eukadiko pilotuak.

Zenbat pilotu etorriko dira?

40 eta 45 pilotu artean etortzea espero dugu. Kopuru serioa da hori. Kontutan hartu motokroseko bi moto halako badela quad bat, eta horiek guztiak hartzeko lekua behar dela. Guk, San Pedron eta Elgoibarren eskura dauzkagun azpiegiturekin -lekua, logelak- moldatu behar dugu eta ahalegin berezia egin beharko dugu gauzak nahi dugun moduan irten daitezen. Udaletik jaso dugun laguntza itzela izan da. Horrelako gauza bat antolatzen dugun estreinako aldia izanik, oztopo dezenterekin topo egin dugu hor zehar, baina etxean jaso dugun laguntzaz ez daukagu kexarik. Jesus Mari Arrillaga ere esker-tu nahi nuke publikoki, zirkuitua bere lurretan prestatu dugulako eta honek ere ez digulako inongo trabarik jarri, ez eskabadora bat sartzeko ez beste ezertarako.



Nork prestatu eta diseinatu du zirkuitua?

Guk prestatu dugu, eta federazioak eskatzen duen neurrietara eta araudietara moldatzea izan da zailena. Zirkuituaren diseinua egiteko bi aholkulari eduki ditut, txapelketan parte hartuko duten bi pilotu, hain zuzen ere. Oso gustura geratu dira emaitzarekin eta zirkuitu oso teknikoa dela nabarmendu dute. Bederatzi bat salto dauka eta 15-20 metro luzeko jauziak egingo dituzte horietako batzuetan. Ikusgarria izango da. Jendea harrituta geratuko da horrelako quad batek (150 kiloko pisua dute) nola egin ditzakeen horrelako saltoak ikustean. Motorrak bezain ikusgarriagoak dira quadak, baina ikuskizun ezberdina da. Aurtengoa ondo iriteten bada, buruan dauzkadan ideia eta proiektu berri bat garatu nahi ditut datozen urteetan.

Iñigo Larizek errekor berria ezarri du Nahaste Borraste herri proban

Nesketan, Ainhoa Lendinez izan da bizkorrena

Iñigo Larizek irabazi du aurtengo Nahaste Borraste proba, eta 18:03 denborarekin errekor berria ezarri du, gainera. Larizek herri proba horretan lortu duen hirugarren garaipena izan da. Emakumezkoetan, bestalde, Ainhoa Lendinez izan da irabazlea 19:55 denborarekin. Aurtengoan 55 lagunek hartu dute parte, eta horietatik, sei izan dira emakumezkoak. **Argazki gehiago eta bideoa ikusteko: www.elgoibarren.net**



Sailkapena

1. Iñigo Lariz	18' 03"
2. Ibon Gabilondo	18' 17"
3. Jose Antonio Ruiz	18' 50"
4. David Conde	18' 57"
5. Javier Fernandez	19' 12"
6. Iñigo Iturbe	19'17"
7. Jon Larrañaga	19'23"
8. Jose Felix Iglesias (Bet. A)	19' 24"
9. Jorge Gonzalez	19' 35"
10. Gorka Iriondo	19' 39"
11. Oier Irazabal	19' 40"
12. Jon Basurto	19' 51"
13. Ainhoa Lendinez (1. neska)	19' 55"
14. Iñigo Salegi	19' 56"
15. Alberto Sesgasi	20' 17"
16. Iñaki Ulazia	20' 34"
17. Iban Gonzalez	20' 41"
18. Loren Galeano	20' 53"
19. Arkaitz Irueta	20' 53"
20. Sergio Galindo	21' 05"
21. Andoitz Agirregomezkorta	21' 27"
22. Jon Urbieta	21' 27"
23. Josu Idiakoz	21' 37"
24. Igor Mugertza	21' 40"
25. Iñigo Aranbarri	21' 40"
26. Andoni Zubiaurre	22' 02"
27. Ignacio Perez (Bet. B)	22' 08"
28. Angel Irusta	22' 10"
29. Asier Jauregi	22' 23"
30. Juan Jose Etxeberria	22' 25"
31. Goiatz Leibar	22' 43"
32. Ernesto Rodriguez	22' 50"
33. Carlos Garcia	23' 14"
34. Josu Irionso	23' 20"
35. Julian Rodriguez	23' 39"
36. Aitzol Gonzalez	23' 56"
37. Jurdan Ezenarro	24' 28"
38. Urko Vitores	24' 44"
39. Jon Elizburu	24' 50"
40. Iñigo Barrenetxea	24' 50"
41. Iker Martinez	25' 49"
42. Asier Markiegi	26' 06"
43. Josu Zubiaurre	26' 22"
44. Zelai Garcia	26' 46"
45. Judith Zabala	26' 50"
46. Alberto Zelaia	26' 50"
47. Antonio Rodriguez	27' 50"
48. Antonio Fernandez (66 urte)	28' 10"
49. Maite Elizburu	30' 40"
50. Oihana Apellaniz	30' 23"
51. Mireia Huidobro	30' 23"
52. Luis Beristain	30' 25"
53. Joan Francesc	31' 25"
54. Joan Asensio	31' 27"

310 lagunek parte hartu zuten Debabarrena BTT martxan

Debabarrena BTT martxan 310 lagunek hartu zuten parte, 40 gradutik gorako tenperaturei aurre eginez. Irteera arrakastatsua izan zela adierazi dute antolatzaileek, Debegesako eta Elgoibarko Udal Kirol Patronatuko arduradunek. "laz baino 70 lagun gutxiago etorri dira aurten, baina inguruko herri askotan jaiak izanik, eta, bestetik, bero handia egingo zuela iragarri zutela, aintzat hartzekoa da 300 lagunetik gora batu izana". Txoko askotatik ailegatu ziren, gainera, mendi bizkleta zaleak: Palentziatik, Kantabriatik eta Euskal Herriko hainbat bazterretatik.



'Ronaldo's Team' taldeak irabazi du Gaztelekuko Futbol 7 txapelketan.

Udarako prestatutako ekintzen barruan, Futbol 7 txapelketa antolatutako Gaztelekukoak 13 eta 15 urte arteko gazteentzako. Sei taldek parte hartu dute estreinako edizioan eta *Ronaldo's Team* izeneko taldeak irabazi du txapelketa.



Sanlok festa handi batekin agurtu zuten denboraldia



Denboraldi amaierako festa izugarria antolatutako Sanlok joan den zapatuan. 450 lagun -jokalaria, entrenatzaile, guraso, babesle, jarraitzaile eta zuzendaritzakoak- batu ziren Ikastolako frontoian egin zuten afarian. Afalostean, urteko jokalaririk aipagarrienak saritu zituzten eta IMH taldeko neskek eta Maite Bollarrek kiroltasunaren saria eta jokalaria onenarena jaso zituzten, hurrenez hurren, Gipuzkoako Eskubaloiko Federazioko presidentearen eskutik. Ordu txikietan amaitu zen festa. www.sanlo.net atarian ikus ditzakezue argazki guztiak.

Hirugarren postua Mekatar xake taldearentzat

Mekatar Elgoibarko xake taldea podiumeko azken koskara igo zen Elgoibarren jokatu zen Euskal zirkuituko kanporaketan. Finalerdietara sailkatu eta gero, txapeldunak, Urrietako taldeak kanporatu zituen elgoibartarrak. Hirugarren eta laugarren postuak erabakitzeko lehian, baina, Azkoitiko taldeari 2 eta 1 irabazi zion Elgoibarkoak eta hirugarren postuan amaitu zuten. Jose Luis Larrañaga, Mikel Leon eta Ivan Fernandezek osatu zuten Elgoibarko taldea.

Azkarateko Igoera uztailaren 23an egingo da

Madalako jaien barruan Azkarateko Igoera (bizikletaz zein antxitxika) egingo dute aurten, uztailaren 23an. Madalatik irten (11:00etan) eta Azkarate gaineraino igo beharko dute parte hartzaileek 5.900 metroko ibilbidea osatuz. David Slater ingelesak 1981. urtean egin zuen marka (20:40) ontzen duenak sari berezia jasoko du, eta baita lehen emakumeak ere. Iriondo, Txariduna, Lanbroa edo Sua tabernetan, edota www.herrikrossa.com atarian, eman daiteke izena.

Golfistak indarrean

Javier San Andres eta Yon Iñaki Egaña bigarren postuan sailkatu ziren, bakoitza bere kategorian, Debabarrenako San Juan golf txapelketan. Joan zen ekainaren 24an jokatu zen txapelketa Larrabearen.



LANA

ESKAERA

- Neska goizez, orduka, lan egiteko prest. ☎ **697 735 046**
- Mutila lanerako prest. Biltegi lanetan, banatzaile lanetan, txofer... ☎ **622 634 238 (Manuel)**
- Klase partikularrak ematen dira: Batxilergoko matematika, LH, DBH eta kontabilitatea. ☎ **666 042 710**
- Neska abuztuan lan egiteko prest. Garbiketa lanak egin edo pertsona nagusiak zainduko lituzke. ☎ **618 163 061**
- Uztaileko eta abuztuko asteburuetan lan egiteko prest. Nagusiak zein umeak zainduko nituzke. ☎ **649 663 091**
- LH eta DBHko klase partikularrak ematen ditut. ☎ **669 322 250**
- Lehen Hezkuntzako klase partikularrak emateko eta umeak zaintzeko prest. Uztailean. ☎ **659 024 427**
- Emakumeak pertsona nagusiak zainduz lan egingo luke. Interna edo orduka. ☎ **699 813 826**
- Neska lanerako prest. ☎ **681 222 807**
- Mutila lan bila, pintore edo zerbitzari lanak egiteko. ☎ **656 781 743**
- Emakumea lan bila dabil. Pertsona nagusiak zaintzen esperientzi handia daukat. ☎ **633 150 376**
- Mutila lanerako prest. Nagusiak edo gaixoak zaintzeko prest. Klinika laguntzaile titulua. ☎ **681 154 706**

- Neska lanerako prest. Nagusiak zainduko lituzke, orduka edo interna. ☎ **688 682 398**
- Neska gaztea lanerako prest, pertsona helduak eta umeak zaintzeko prest. Garbiketa lanak egingo nituzke orduka edo interna. ☎ **646 821 678**

ESKAITZA

- Sukaldari euskalduna behar da ogitartekoak eta plater konbinatuak prestatzeko. Mendaroko taberna batean lan egiteko izango litzateke. ☎ **666 559 513**

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUA ETA SALMENTA

- Etxea salgai herri erdian. Prezio onean. Fatxada, teilatua eta igogailu berriak. Dena kanpoaldera (91m2). Aukeran garaje itxia Plaza Txikian. ☎ **609 141 312**
- Bi gelako apartamentua salgai kiroldegi ondoko etxe berrietan. Erosoa, argitsua, oso polita. Garajea aukeran. ☎ **675 007 661**
- Gizonezkoak pisua alokatuko luke Elgoibarren. ☎ **620 664 454**
- Etxe berria salgai Urruzunon. Hiru logela, bi komun, egongela-jangela, terraza eta sukaldea altzariekin. ☎ **676 404 365 / 669 621 164**
- Pisua alokatuko nuke. ☎ **689 563 351**
- Etxea hartuko nuke alokairuan. ☎ **697 735 046**

- Apartamentua alokatzen da Santo Domingo de la Calzadan (Errioxa), abuztuan. Prezio onean. ☎ **941 341 437 / 676 882 373 (Esther)**

GARAJEAK ETA LOKALAK

- Autokarabanentzat garaje itxiak alokatzen dira Mendaron. Kurutzgain industrigunean. Komuna eta argi indarra dute. ☎ **630 941 241**
- Gazteentzako lokala alokagai, araudi berria betetzen du. 125 m2 ditu gutxi gorabehera. ☎ **649 446 716 (Loli)**

BESTELAKOAK

- Graduututako betaurreko urdinak aurkitu dira Bioin inguruan. ☎ **646 279 610**

ZOZKETA

- Ikastolaren eguneko zozketako hirugarren sariduna ez da agertu oraindik. Zenabakia: 0554 (erreserbakoa, 1481).

Olivia

Laser Diodoa

San Inazio, 4 behea
20870 Elgoibar
Telf.: 943 742 725
www.ammergroup.es



Berrezten du
Berdefinitzen du
Birmoldatzen du

BERRIA!

**Berehalako
DHA koloreztatzea
5 minututan soilik.
%100 naturala.
Uva izpirik gabe**





SKEYNDOR DERMA PEEL.
Lehen peeling kosmezeutikoa.
**Larruazaleko inperfekzioak
kentzeko berehalako
tratamendua**



• Zorionak, **Nora**, zure seigarren urtebetetzean. Muxu handi bat aita, ama eta Unaitxoren partez.



• Zorionak, **Ane**, zapatuan 6 urte egingo dituzulako. Ondo pasa! Andres, Rosa, Ariane, Beñat eta Ikerren partez. Milioi bat muxu!



• Zorionak, **Markel**, asteazkenean 2 urte egin zenituelako. Muxu handi bat Iker, Joane eta Ekainen partez.



• Zorionak, **Teshale!** Maite-maite Etxekoak.



• Zorionak, **Markel**, bihar, 4 urte egingo dituzulako. Patxo potolo bat familiakoen, eta, batez ere Paula, Jakes eta Eleneren partez.



• Zorionak, **Nahia!** Igandean 3 urteko beteko ditu etxeko printzesak! Muxu potolo bat etxekoen partez



• Zorionak, **Unai**, asteazkenean 2 urte egin zenituelako. Muxu handi bat etxekoen, eta, bereziki Nagore eta Juneren partez.



• Zorionak, gure pintzesa, **Maddi**, astelehenean 3 urte egin zenituelako! Muxu handi bat familiakoen eta bereziki, Aneren partez.



• Zorionak, **Gorane eta Amanda**, zuen 8. eta 4. urtebetetzean. Muxu asko, aitona-amonen partez.




• Muxu asko, **Jairo eta Amandal** Bereziki, zuri, guapa, zure zortzigarren urtebetetzean.



• Zorionak, **bikote**, zuen laugarren eta zazpigarren urtebetetzean.



• Zorionak, **Elaia**, gaur 3 urte egin dituzulako. 3 muxu pottolo familiakoen, eta bereziki Unaxen partez.



• Zorionak, **aita eta ama**, familiako guztien partez. Muxu handi bat!

Erretratu bakarreko agurra: 3 €. Argazki bikoitza: 5 €. Hirukoitza: 7 €. Hiru lagunetik gorako taldeak: 10 €.

Norbait zoriondu nahi baduzu, argazkia **eguzten eguerdia** baino lehen ekarri behar duzu.

BARRENEKO bulegora 12:00ak baino lehen, edobarren@elgoibarkoizarra.com e-postara bidali.



**Badatoz
San Bartolomeak !!!**

Publizitatea jartzeko:

943 743 704

1 barixakua

Hitzaldia

20:00 'Badago konponbidea'
Alkoholiko Anonimoen hitzaldia,
Santa Klarako komentuan.

Musika

22:30 Kontzertua
Moby Dick taldearen
kontzertua, Kultur Etxeko
sotoan.

3 domeka

Tailerra

11:30 Txalaparta tailerra
Zubibai elkarteak antolatuta,
Aitzolako frontoian.

4 astelehena

Tailerra

10:00 'Irudia eta soinua'
Zubibaik antolatuta, hilaren 4an,
5ean, 11n eta 12an izango da.

Tailerra

10:30 'Hilerokoa'
Miren Guillo eta Mireia Delgadok
emango dute, hilaren 4an eta
5ean. Kultur Etxean.

7 eguna

San Ferminak

8:00 Entzierroa zuzenean
Kultur Etxeko hitzaldi gelan
emango dituzte Iruñeko jaietako
entzierroak.

10:30 San Fermin Txiki

Atxutxiamaiak aisialdi taldeak
antolatuta, San Bartolome eta
Errosario kaleetan zehar.

Hitzaldia

19:30 Osasun energetikoa
Kemen belardendak antolatuta,
Pilar M. Burgoak egoera fisiko
eta emozionalean energiak
dituen onurei buruz hitz egingo
du. Kultur Etxean.

IDOTORBE-SAN PEDROKO JAIAK

1 BARIXAKUA

21:00 Lagunarteko afaria
Izena emateko: 652 159 275
23:00 Mus txapelketa

2 ZAPATUA

12:00 Quad Cross txapelketaren
egiaztapenak

15:00 Quad Cross txapelketa

Egun guztian zehar, motoen
erakusketa
20:30 Trikitilari eta bertsolariak
Arkaitz Estiballes eta Julio Soto.

23:00 Gaupasa

Ion Ansorregi eta Larrañagarekin.

00:00 Bolo txapelketa

3 DOMEKA

10:30 Meza
Ondoren, txalaparta
Ttakun bikotearekin.
12:00 Euskal dantzak
Eztei taldearekin.
17:30 Idi demak
Egoitz Armaolea (Zumarraga)

Isidro erretegia (Azkoitia)

Goirgolzarri (Laudio)

Ondoren, motoaren zozketa

18:30 umeentzako jolasak

Egun osoan zehar, Baltzola anaiak
trikitilariak

OKINDEGIA

3 domeka EIZAAGIRRE

FARMAZIAK (24 orduz)

1 Ibañez
2 Zabaleta
Goizez: Etxeberria (S.A.)
3 Zabaleta
4 Etxeberria (Errosario)
5 Ibañez
6 Garitaonandia-Bidasolo
7 Etxeberria (Santa Ana)
8 Ibañez

Fernandez

Herriko enparantza 4,
Garagartza (Mendaro)
Tel: 943 756 142

Ibañez- Rekalde, 1 (Soraluze)
Tel: 943 751 638

Zabaleta- Kalebarren, 9
(Soraluze)
Tel: 943 751 384



Uztailak 6, HONDARTZA.

Uztailak 8, SAKONETARA IRTEERA.

Uztailak 10, IGERILEKUA.

Uztailak 20, HONDARTZA.

Uztailak 22, SAN LORENTZORA.

Uztailak 23, UDALEKUETAKO FESTA.

Uztailak 24, UR-JOLASAK IGERILEKUAN.

ZINEA

PLAZA HANDIAN

«Piratas del caribe, en mareas misteriosas»

1, barixakua: 22:30

«Agua para elefantes»

2, zapatua: 22:30

«Piratas del caribe, en mareas misteriosas» Zuzendaria: Rob Marshall. EEBB, 2011. Iraupena: 137 min. Aktoreak: Johnny Depp, Geoffrey Rush, Penelope Cruz. Jack Sparrow kapitainak aspaldiko amorante batekin egingo du topo, eta ez daki beraien artekoa maitasuna den, ala emakume horrek gaztetasunaren iturria aurkitzeko interes soilia duen. Emakumeak Queen Anne's Revenge itsasontzia erasotzeko eskatuko dio Sparrowri eta hortxe hasiko da benetako abentura.

«Agua para elefantes» Zuzendaria: Francis Lawrence. EEBB, 2011. iraupena 122 min. Aktoreak: Robert Pattinson, Reese Witherspoon. Depresio Handiaren garaiko filma da. Albaitaritzza ikasten ari den gazte batek ikasketak laga beharke ditu bere gurasoen hilketaren ostean. Zirko baten hasiko da lanean, eta Marlenarekin maiteminduko da. Marlena gizon maltzur batekin ezkondu da dago, eta arazo bat baino gehiago sortuko da.

ALOKAIRUAN,
baina erosteko
aukerarekin!

**Aukera ezin hobea
aprobetxatu!**



- ✦ Etxebizitza BERRIAK
- ✦ Banco Guipuzcoanok finantzaturako obra
- ✦ Berahala eskiritutzeko aukera
- ✦ Egungo etxebizitza saltzeko helburuarekin erosketa geroratzeko aukera
- ✦ Bi etxebizitza-eredu bisitatzeko aukera
- ✦ Horma-armairu eta guztiz hornitutako sukaldearekin

230.000 €tik aurrera
garajea eta
trastelekua barne



Santa Klara kalea, 32 C - Behe solairua B
Tel. 943 74 44 67

ELGOIBAR

OSASUN GIDA



MEDIKUNTZA ALTERNATIBOAK

Kemen Belardenda.

Naturopata, Iridiologia eta Homeopata.

(Pisu kontrola, "Dieta erraza", Bach lo-reak, janari biologikoak, nutrizio eta osasun ikastaldiak, masajeak, doitze neurologikoa, astrologia medikuntza eta hipnosia). Familia konstelazio taillerak. Naturopata, makrobiotika eta P.N.L. kontsultak, ordua aurrez hartuta. San Bartolome, 29
Tel: 943 744 031
Egunero: 9:00-13:00
16:30-20:00

Sanatana Dharma

Yoga Elkartea

Anginei aurre egiteko masajea. Urasandi, 9
Tel: 943 748 593 (ldoia)
685 722 131
Astearte eta ostegunetan:
10-11:30 / 18-19:30 / 20-21:30
Mendaro:
Astelehen eta asteazkenetan:
15:00-16:30

MASAJISTAK

Victoria Iraegi

(Esku-terapiak: kiropraxia, drannatzaile linfatikoa, osteopatia, kirol masajea (bendaje funtzionala eta "taping neuromuskularra", lehiaketa bendajea). San Frantzisko kalea, 40 (atzealdea)
Tel.: 943 740 770
Astelehenetik Ostiralera:
8:00 / 14:00

PODOLOGOAK

Oinberri

Errosario kalea, 25
Tel: 943 741 795
Astelehenetik ostiralera:
9:00-13:30 / 15:00-19:30

Iñigo Arrillaga Yudego

- Hanken afekzioen terapia.
- Neurriera egindako plantilak.
- Hanka diabetikoaren zainketa.
- Ordenagailuaren bidezko hankaren azterketa.
San Frantzisko, 20 behea
Tel: 943 741 645
Ordutegia:
9:30-13:30 / 15:30-19:30

FISIOTERAPIA

Ainhua Fisioterapia

Jausoro, 6 behea.
Fisioterapia eta osteopatia.
Tel.: 943 531 953
669 565 745

C.R.F. erreabilitazio zentroa

(Partikularrei eta seguruen bidezko tratamenduak). Fisioterapia, kirol-fisioterapia, mesoterapia, elektroakupuntura, laser terapia, kinesio taping eta osteopatia.
San Inazio, 2
Tel.: 943 743 374
Astelehenetik ostiralera:
8:00 - 13:00 / 15:00- 19:00

OPTIKAK

Ikus optiko-optometrista

San Bartolome, 10
Tel: 943 743 734
Egunero:
9:30-13:00 / 16:30-20:00

Uzuri

(Optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)
San Frantzisko, 21
Tel: 943 740 359
Egunero:
9:30-13:00 / 16:30-20:00

HORTZ KLINIKAK

Irale

Errosario Kalea, 7 behea
Tel: 943 743 679
Zeharkalea, 8 behea (Ermua)
Tel: 943 177 134
irale@irale.com
www.irale.com

Leku eder

Elena Herrero Lobo.
Aita Agirre enparantza,
5 behea.
Tel: 943 530 053
lekueder@infomed.es

Beitia Arriola

- Odontologia orokorra eta ortodontzia
- Haurren Hortzagin programa
- Panoramikak eta telerradiografiak
Trenbide kalea 21, behea
Tel: 943 531 869

ORTOPEDIAK

Itziar Sarasketa

San Frantzisko, 12
Tel: 943 74 35 62
Egunero:
9:30-13:00 / 17:00-20:00

